


# INFLAZIOA

## Euskadiko KPIa %1,8an kokatu zen irailean

### KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Inflazioak apaltzeko joerari jarraipena eman zion eta irailean KPI %1,8 hazi zen, hau da aurreko hilean baino zortzi hamarren gutxiago. 2021eko martxotik jaso den prezio igoerarik txikiena da irailekoa. Moteltze hori erregaien beheranzko bilakaerari eta elikagaien prezioen portaera hobeari esker gertatu da.


### KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2022	2023	2024ko iraila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	8,0	3,6	1,8	1,8
Azpiko inflazioa (%84,6)	5,1	6,2	2,5	2,1
- Elikagai landuak (%15,4)	10,2	12,5	3,6	0,5
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	4,7	0,6	0,1
- Zerbitzuak (%49,0)	3,3	4,3	3,0	1,5
Hondar inflazioa (%15,4)	19,5	-6,4	-2,0	-0,3
- Landu gabeko janariak (%6,5)	10,8	7,3	2,4	0,2
- Energia (%8,9)	26,6	-17,0	-5,6	-0,5

### AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




### HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



## ELIKAGAIEN PREZIOA


Urte arteko aldakuntza tasa



Hala eta guztiz ere, elikagaien prezioei dagokierenez, igoerak arrazoizko tasetaraino (%3,2) motelduz joan badira ere, oraindik urrun daude 2021ean lortu ziren maila haietatik. Era berean, moderaziorako joera hori leunduz joango da datozen hilabeteetan, elikagai jakin batzuen BEZ tasek normaltasuna berreskuratuko baitute. Era berean, zerbitzuen prezioak gainerako taldeen batez bestekoaren gaineratik igotzen ari

## ZERBITZUEN PREZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



dira, turismoaren eskariaren gorakada nabarmena dela eta. Hain zuzen ere, hotelak, kafetegiak eta jatetxeak izan ziren talde inflazionistetakoko bat, %3,6ko erregistroarekin. Aitzitik, garraioak modu erabakigarrian lagundu zuen inflazioa moteltzen, bi puntu eta sei hamarren jaitsi baitzen -%1,1etik -%3,7ra, lehenago ere aipatu den erregaien prezioen jaitsieraren ondorioz.

## KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2024ko iraila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
<b>INDIZE OROKORRA</b>	<b>1,8</b>	<b>1,5</b>	<b>1,7</b>
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,2	1,8	1,7
Edari alkoholdunak eta tabakoa	4,0	3,5	5,3
Jantziak eta oinetakoak	-0,3	0,4	1,1
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	3,1	2,9	1,8
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,1	0,5	-0,5
Osasuna	3,0	2,0	3,5
Garraioa	-3,7	-3,9	-2,1
Komunikazioak	-0,2	-0,2	-3,3
Aisia eta kultura	1,1	1,1	2,4
Hezkuntza	2,7	2,7	4,1
Jatetxeak eta hotelak	3,6	4,7	4,8
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	3,4	3,1	4,1

Iturria: INE eta Eurostat